

Salgaiak edukitzeko, babes-teko, erabiltzeko, banatzeko edo aurkezteko den edozein gaiz egindako produktua da bilgarria, lege-definizioz. Papera, kartoia, era guztietako plastikoak, kristala eta tetra-brika dira bilgarriok osatu ohi dituzten gaiak. Ezaugarri eta jatorri aldetik arras desberdinak diren materialak eginak daude, beraz. Horrez gain badute zaborrok beste ezaugarri garrantzitsu bat: zabor-poltsaren atalik handiena osatzen dute, hau da, poltsaren bolumenaren % 50era izatera iristen dira askotan. Egia esan, azken hamarkadetan etengabe haziz joan den zatikia dugu bilgarrien hau eta oraindik ere hazten ari dela esan behar: hazkuntza hau geraezina da bai herri industrializatueta eta bai gainerakoetan ere. Itzultsibide nekeza duen egoera hau egungo kontsumoaren hazkunde paregabearen ondorio zuzena da.

Sektore guztietan ez dira bilgarri-hondakinak berdin ekoizten

Bestalde, hiriguneetan eta nekazaritza-ingurueta ekoizten diren kopuruak arras desberdinak dira. Lehenengoa da ez bairik gabe zabor-sortzaile askozaz handiagoa, baserrietan gai asko bertan ekoizti eta birziklatu izan baitira betidanik. Hala eta guztiz ere, azken urte hauetan nekazaritza-inguruetan plastikoak nabarmenki egin du gora, belarra hartitzeko sistema berrien eta berotegien ugaltzearen ondorioz. Horretaz ohartzeko ohiko belar-meta klasikoan ordeztatikozko belar-balak paisajea nola ugaritu diren erreparatzea besterik ez dago.

Industrietan ere, ontziak eta bilgarriak erruz erabiltzen dira. Nahiz eta normalean horrelakorik aipatu ez, industria eta merkataritza dira zabor-mota honen ekoizlerik handienak. Halaxe da, industriaren ingurugiro-arazoak

mintzagai direnean ez da bilgarrien ekoizpenaren arazoa gehienetan aipatzen, bigarren mailako arazo gisa hartu ohi baita. Hondakin toxiko eta arriskutsuak dira buruhauste eta kezka gehien sortzen dizkietenak bai enpresaburuari eta baita Administrazioari ere. Bestalde, bilgarriak hiri-hondakinekin batera kudeatzen direnez, haien ekoizpenaren zifra hiri-hondakinen kopuru osoaren baitan barreiatuta geratzen dira. Bilgarriak hiri-hondakin solidoen atal nagusienetakoa izanik ingurugiro-arazo ere badira, eta ez txikienetakoa gainera. Askotan aipatu dira zaborrak eta beren tratamenduak eragiten dituzten inpaktuak eta ez goaz hemen beti

esandakoak errepikatzen, gauza bat salbu: bilgarriek, zabor gehientsuenek bezala, lehengai ustiatzen denean eta fabrikatzen diren unean hasten direla inpaktua sortzen, eta horregatik ez direla bakarrik zabortegiek edo tratamendu-planteak eragindako kalteak soilik gogoan hartu behar inpaktuen balorazioa egiterakoan.

Bilgarriak birziklatzeko legeak eta xedapenak

Bilgarrien arazoari konponbidea bilatu nahian, 1994an Europako Batasunak ondoko xedapenak zituen arteztarau bat kaleratu zuen: batetik, bilgarri-hondakin guztien materialen % 25-45 bitartean birzikla daitezela, eta, beste-

Bilgarrien birziklatzea kudeatzeko sistema berehala ma

Maidier Etxaide*

rtxan



Artxibokoa

tik, material bakoitzaren pisuaren % 15 gutxienez birzikla dadila. Helburu horiek 2001 urterako beteta egotea agintzen du aipatu arteztarauak. Hori bere horretan igaro zen 1997an Espainiako legea, gehigarri txiki bat erantsita, hots, bilgarrien kopurua % 10 murriztu beharra. Legea garatzeko egin den erregelamenduan, ordea, ez da puntu hau azaltzen. Legeak eta bere erregelamenduak bilgarrien kudeaketa Puntu Berde edo Sistema Integratu deritzonaren inguruan eraiki behar dela xedatzen dute. Horren arabera, bilgarri-fabrikatzaileek, bilgarriak era-

biltzen dituzten enpresek eta birziklatzaileek Sistema Integratua kudeatuko duen enpresa bat sortuko dute eta kudeaketaren prezioa hari ordainduko diote. Espainian Ecoembes deritzona sortu da ondorioz. Alabaina, legeak libre uzten du material jakin batekin lan egiten duten sektoreek, bakoitzak bere aldetik, beren sistema propioa sor dezaten. Beiraz eta latoiaz diharduten enpresek, esaterako, bide hori jorratu dute eta jada sistema propio bana sortuta dute. Esan bezala, sistema orokorra kudeatzeko 1997aren bukaeran Es-

BABESLEA

Eusko Jaurlaritzza

Lurralde Antolamendu,
Etxebizitza eta Ingurugiro Saila



Salgaiak edukitzeko, babesteko, erabiltzeko, banatzeko edo aurkezteko den edozein gaiz egindako produktua da bilgarria, lege-definizioz.

painiako bilgarrien fabrikatzaile, erabiltzaile eta birziklatzaile gehien artean Ecoembes enpresa sortu zuten. Partaideek urtero beren fakturazio eta aitopenen arabera ezarritako kuota ordaindu behar dute, Ingurugiro Administrazioak aurretik ezarri duen material bakoitzaren kiloaren zenbatekoa.

Euskal lurraldean lehen urratsak ematen ari

Legez udaleei edo zaborren mankomunitateei dagokie zaborren kudeaketa. Ordea, hainbat bide erabil daitezke dirua Sistema Integratutik hauetara transferitzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan, esaterako, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailordetzaren eskuetatik igarotzen da dirua. Hori gauzatzeko hitzarmen bat sinatu dute Erkidegoko gobernuaren eta Ecoembes artean. Udal eta mankomunitateek hitzarmen horrekin bat egin behar dute ondoren dirua jaso nahi badute. Bakoitzak jasoko duen saria, birziklatu duen kopuruaren arabera kalkulatu da. Lurralde historiko bakoitzak bere bidea egiten ari da: Gipuzkoan, kasu, hasiera batean mankomunitate eta udal guztiak Zergabiren inguruan bilduta elkarturik ibiltzea pentsatuta bazuten ere, San Markoseko mankomunitateak bere aldetik jotzea erabaki du azken unean.



* HAIZEA Ikerketa eta Dokumentazio Zentroko kidea.